

ARABA ESI-KO PROFESIOALEN 1. BERTSO-BAZKARI KLINIKOA

Profesionalen arteko euskal sareak sortzeko eta indartzeko asmoz, Araba ESlak 1. bertso-bazkari kliniko musikatua antolatu zuen joan den otsailaren 23rako, eta, hala, ia kategoria

guztietako 28 profesionalak parte hartu zuten egun horretan, arratsaldeko 3etan, Gasteizko Erdizka jate-txean giro ederrean egin zen bazkarian.



Arratsaldean oraintxe gaude munduarekin pakean.

Ez al da izango bazkari hauxe osasunaren kaltean!

Sartu beharko gara o(ra)in saio klinikoaren katean, aprobeztatuz hemen gaudela profesionalen aurrean.

Profesionalen aurrean gaude denak alderikan alde.

Ze, bazkarian, menua gendun orain bertsoak debalde.

Profesionalak gure inguruan, Felipe, seguru gaude!

Egin dezagun bertsoetan baina denak koman utzi gabe.

Felipe Zelaieta eta Juan Mari Juaristi bertsolariak aritu ziren girotze-lanetan, eta bazkarira bildutakoek gozatu ederra hartu zuten haiek osasunaren eta euskararen inguruan jarri zituzten bertso, kanta eta jolasekin. Harrezkero, saioan parte hartu zuten guztiak irrikan daude hurrengo bertso-bazkarira joateko.

Hona, hurrenez hurren, Felipek eta Juan Marik saioaren hasieran kantatu zituzten bertsoak:

OSAGAIZ, OSASUN-ARLOKO ZIENTZIEN ALDIZKARI BERRIA

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) bultzatutako proiektua da Osagaiz. Bertan, medikuntzan, erizaintzan, farmazian eta osasun-arloarekin lotuta dauden gainerako zientzietan egiten diren ikerketek, lanek, errebisioek eta bestelako artikuluek izango dute lekua.

Horien erakusleihoa izango da, beraz, Osagaiz, eta, aldi berean, osasu-

narekin lotura duten Euskal Herriko profesionalentzako bilgunea eta osasun-arloko terminologia garatzeko eta euskara sustatzeko tresna. Urtean bi ale argitaratuko dira *on line* euskarrian, www.osagaiz.eus helbidean, Open Journal System plataformaren bidez. Aldizkaria irekita dago babesle, laguntzaile edo artikuluegile modura parte hartu nahi dutenei.

APIRILAREN 3AN IREKIKO DA URRIAN HASIKO DIREN EUSKARA-IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA

Lanorduetan ikasteko hiru modalitate daude: barnetegia, 5 orduko ikastaro trinkoa eta 2 ordukoa. Horietarako izena emateko azken eguna apirilaren 23a da.

Lanorduz kanpo ikasteko, berriz, bi ikastaro mota eskaintzen dira, presentziala eta autoikaskuntzakoa (*on line*), eta izena emateko epea zabalagoa da: maiatzaren 19ra arte.

Osakidetza webgunean duzu ikastaroei buruzko informazio guztia.

«ARLO SANITARIOKO PROFESIONALAK EUSKARAZ LANEAN» IKASTAROA ANTOLATU DU BERRIZ DONOSTIALDEA ESI-AK

3. hizkuntza-eskakizuna edo antzeko maila bat gaindituta daukaten profesionali zuzenduta dago ikastaroa, eta haiek lanean darabiltzaten testuak euskaraz egiten ikastea du helburu (txostenak, dibulgaziozko testuak, prestakuntza-saioak, pazienteentzako gomendioak, artikulua, aurkezpenak).

Bigarren aldia da halako ikastaro bat antolatzen dela. Aurrekoa udazkenean izan zen eta orduko arrakasta ikusita berriz egingo da. Horretaz jardun berriak gara Osatuberrin, Euskara Osakidetza atalean.

Ikastaroa 20 orduko bi zatitan gauzatu da, apirilaren 24tik ekainaren 20ra bitartean. Lehenengoan, testuak euskaraz sortzeko irizpideak azalduko dira eta, besteak beste, egunerokoan dituzten zailtasun inguruan arituko dira eta dokumentu-mota batzuk landuko dituzte. Bigarren zatia, berriz, borondatezkoa da, eta nork bere proiektua garatu beharko du, bakarka nahiz taldeka, eta lanean erabiliko duten dokumentu bat sortuko dute: pazienteentzako jarraibide batzuk, saio kliniko bat...

Informazio gehiago izateko edo zalantzak argitzeko, deitu Donostialdea ESlko Euskara Arlori:

943 00 7417 / 943 00 7416.

«Genero-begirada batekin egunerokoan nola aritu aztertuko dugu»

irene tubia Familia-medikua eta Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko kidea

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak bere 27. Osasun Biltzarra egingo du martxoaren 31n eta apirilaren 1ean. Iruñean izango da, eta *Aniztasuna osasunean* du izenburua. Gizartearen aniztasuna kontuan izanik, osasun-langileek nola jokatu behar duten aztertu eta horri buruzko gogoeta egingo dute biltzarrean, eta hor izango da Irune Tubia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko familia-medikua ere.

Zer helburu ditu Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen biltzarrak?

Asko ditugu. Horietako bat da euskarazko foro bat izatea osasungintzaren arloan. Batzuetan, euskara kanpoan geratzen da, eta ez dugu lan-hizkuntza gisa erabiltzen. Zientziarako eta lanerako balio duela erakutsi nahi dugu, eta, gainera, esparru horietan txertatuz gero beste estatus batean izango da euskara.

Aurtengo biltzarrak Aniztasuna osasunean du izena. Zergatik aukeratu duzue gai hori?

Ba, hasiera batean gai bila ari ginela, zenbait ideia agertu ziren: generoa, transexualitatea, terapia alternatiboa... Azkenean, ikusi genuen medikuntzarekin lotura izan arren askorik ukitzen ez diren gaiak direla guztiak, eta denak batzea erabaki genuen.

Lehendabiziko hitzaldian sexu-identitateen gaia jorratuko duzue, eta, besteak beste, kontzeptuak landuko dituzue. Uste al duzu gai hori osasungintzan barneratuta dagoela?

Batere ez. Hein batean horregatik hasi

ginen, gai horiek lantzeko beharra ikusi genuelako. Ohartu ginen ez genuela gaia sobera ezagutzen, eta profesionalok gehiago ikasteko aukera izan zitekeela. Izan ere, beharrezkoa dugu eza gutza, gure lanean garrantzia duelako. **Zuk Osasuna eta generoa mahai-inguruan hartuko duzue parte. Zer jorratuko duzue?**

Jende espezializatua etorriko da, eta nik familia-medikuntzaren gaia jorratuko dut. Oso zabala da, eta genero-begirada batekin egunerokoan nola aritu aztertuko dugu: nola artatu pazienteak, generoarekin lotura duten gaietan pazienteak nola aholkatu, eta beste. Lana ahalik ondoena egiteko, jendea gogoetara bultzatzea izango da gure asmoa.

Eguneroko kontsultan, generoari lotutako zer gauza dira ohikoenak?

Adibidetzat hartzen den egoera bat hau da: bularreko mina dagoelarik, gizonak elektrokardiogramak egitera bidaltzea eta emakumeena kontu psikologikotzat jotzea.

Gizon izan edo emakume izan, sin-



tomei ez zaiela berdin erantzuten aipatzen da programan. Zer arrisku dakartza horrek?

Sintomak gauza bat dira, eta besterik da profesionalok nola interpretatzen ditugun. Uste dut gako batzuk izatea garrantzitsua dela gure interpretatzeko modua ez desbideratzeko. Hala



ere, ez dut uste emakume bat etortzen denean kasurik egiten ez diogunik edo garrantzirik ematen ez zaionik, baina garrantzitsua da begirada hori ere aztertzea.

Zerk sortzen du begirada hori?

Alde batetik, ikusi da gizonezkoetan bihotzekoak-eta gehiago gertatzen di-

rela, baina bata ez du bestea kentzen. Sintoma bakoitzari bere garrantzia eman behar zaio, nahiz gizonezkoetan gehiago gertatu. Horrek ez du desbideratu behar diagnostikorako prozesua.

Transexualitatea ere jorratuko duzue.

Bai, Chrysalis elkartearekin, hain zuzen ere. Transexualitatea lantzen dute, eta, guri dagokigunez, osasungintzan transexualen beharrak asetzeko orduan apur bat herren gabiltzala iruditzen zaigu; hortaz, ikasteko aprobetxa dezakegula uste dugu. Gainera, pertsona transexualek askotan ez dute aurkitzen beren zalantzak argitzeko lagunduko dienik, ezjakintasuna baitago, eta, guregana aholku eske datozenean zer esan jakiteko, beharrezkoa da ikastea eta ahalik zerbitzu onena eskaintzea.

Antisorgailuen eragina ere landuko duzue. Ikerketa batzuek diote gizonezkoen antisorgailuek alboondorio gutxiago dituztela emakumezkoenek baino, baina farmaziaren industriak ez du lehendabizikoan ikerketan sakontzen.

Zergatik?

Interes asko daude, eta ez soilik ekonomikoak. Hor dago, esaterako, gizar-teak nori eman dion ugaltzearen ardurara. Emakumearen ardura balitz bezala hartzen badugu haurdunaldiaren planifikazioa, ardura guztia emakumearen gain utziko dugu. Hala, gizar-teak ardura hori emakumeari ematen badio, industriak haienera bideratuko ditu ikerketak. Oso ikerketa gutxi daude gizonezkoei dagozkienak, besteak beste, oso jende gutxik erosiko dituela esaten delako. Hori ere daukagun gizar-te-estrukturaren ondorio da.

Terapia alternatiboen gaia ere jorratuko duzue. Zein dira gehien erabiltzen direnak?

Ez dakit, baina jakina da gure pazienteek erabiltzen dituztela terapia horiek. Guk ez dugu formakuntza handirik ja-

sotzen horren inguruan, eta terapia horiek biltzarrean lantzea egokia iruditu zitzaigun. Izan ere, pazienteek aipatu egiten dizkigute terapia horiek, eta sarri aholkuak eskatu ere bai. Orduan, ez badakigu zer diren ere... Ezagutza areagotzeko asmoz antolatu dugu.

Zein terapia erakutsiko dituzue?

Shiatsu-a, terapia neuronal, *mindfulness*-a eta beste batzuk. Nik behintzat ez dakit gauza handirik.

«Euskarak zientziarako eta lanerako balio duela erakutsi nahi dugu»

Nolakoa da osasungintza konbentzionalak terapia horien inguruan duen jarrera?

Arriskua dago mundu horretan. Izan ere, sarri ez dago arautua, eta denetarik aurkitu daiteke. Nik, neure kasuan, pazienteei esaten diet oso gutxi dakidala gai horietaz, eta bakoitzak ikusiko duela. Dakidana bakarrik eskain diezaieket nik, eta ez zait zintzoa iruditzen ez dakidanaren inguruan iritzirik ematea. Horregatik, ezagutza ezinbestekoa iruditzen zait, terapia ezberdina zertan diren jakiteko eta funtziona badezakete pixka bat ikasteko. Alderantziz ere bai, funtzionatzen ez dutela ikusten badugu, pazienteari oinarri batekin azaltzeko.

Uste al duzu dauden terapiak leku izan dezaketela etorkizunean?

Batzuek bai. Hain zuzen, Europako beste herrialde batzuetan hemen ez dauden zenbait terapia sartzen dira oinarrizko osasungintza publikoan; osteopatia eta. Uste dut denborarekin batzuk sartuko direla, baina zentzuz egin beharko da, oinarri batekin. Ezin dira guztiak sartu jakin gabe funtzionatzen duten edo ez.

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

«EHUN GUTXI GORABEHERA» ADIERAZTEKO BESTE ERA BATZUK

✓ EHUN BAT, EHUNEN BAT

Gutxi gorabeherako kopurua adierazteko ere erabiltzen da *bat*, *-(r)en* atzizkia daraman edo ez daraman zenbatzaile baten eskuinean jarrita:

- Sanitateko zazpiehun bat osasun-langilek adierazi dute atxikimendua.
- Sanitateko zazpiehun bat osasun-langilek adierazi dute atxikimendua.

Kontuz, baina!: zenbatzailea *mila* edo *milioi* hitzez osatua denean, bi osagaien tartean sartzen da *bat*:

- Zazpi mila bat lagun izango ziren / 7.000 bat lagun izango ziren.
- Zazpi bat mila lagun izango ziren.
- Zazpi milaren bat lagun izango ziren.

✓ EHUN INGURU

Gutxi gorabeherako kopurua adierazteko beste modu bat zenbatzailearen eta izenaren ondotik *inguru* erabiltzea da:

- Zazpi mila lagun inguru izango ziren.
- www.jakinbai.eus webguneko Lanbide Heziketako hiztegiak 8.400 kontzeptu inguru biltzen ditu.

Bestalde, NOR kasutik kanpo, ia ez da ageri tradizioan, eta hobe erabiltzen ez badugu:

- Munduan 350 milioi pertsona inguruk dute depresioa.
- Gaurtik aurrera, 2.000 biztanle ingururi osasun-arreta hobea emango dien osasun-zentro berria izango du Idiazabalek.

✓ EHUNTSU

Hala da bai, ehuntsu! Izan ere, bi erabilera nagusi ditu –tsu atzizkiak:

- 1 Izen bati erantsita, izena adjektibo bihurtzen du, eta horrela sortutako adjektiboak zerbaiten ugaritasuna adierazten du: «Nektarra da landare batzuen loreek ematen duten zuku azukretsua»; «Ebakuntza oso gorabeheratsua gertatu zen». Era berean sortuak dira beste hainbat hitz ere: adimentsu, bitaminatsu, itxaropentsu, izerditsu, kementsu, koleratsu, muskulutsu, odoltsu, osasuntsu, pozoitsu, sasoiatsu, urtsu, zoriontsu...
- 2 -tsu atzizkiaren beste erabileran, berriz, *gutxi gorabehera* adierazten du.
 - *Bezalatsu(ko)*, *honelatsu(ko)*, *horrelatsu(ko)*, *halatsu(ko)*, *antzeratsu* eta antzekoekin erabiltzen da: «Gu duela bi urte bezalatsu gabilza digestio-aparatuko zerbitzuan: larri»; «Plangintzak antzeratsu jarraitu zuen: motel».
 - *Noiztsu*, *nolatsu*, *nolakotsu*, *nontsu*, *zeintsu*, *zer-nolatsuko* eta halako galdetzaileekin: «Nortsu zen edo zertsu bizitza eraman zuen?»; «Zenbatsu urte ditu?».
 - *Ordu*, *egun*, *aste*, *urte*, *mende*, *garai* izenekin: «Urtero, eguntsu hauetan, liburutegia ordenatzeko lana hartzen du»; «Garaitsu horretan gertatuko zen».
 - Eta atal honen izenburuan iragarri bezala, *zenbakiekin* ere erabiltzen da (hamarrekoak, ehunekoak, milakoak, oro har): «Gauza bertsua gertatu zitzaien britainiarrei orain ehuntsu urte»; «Duela hogeitsu urte, egunkari guztien...».

Iturriak: [EHULKU](#) eta [Morfologiaren inguruko zalantzak eta argibideak](#).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK
EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2017KO
LEHENENGO DEIALDIA

Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 21ean bukatu zen, eta probetarako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda martxoaren 29an argitaratuko da. Aurreikusita dagoenez, idatzizko probak maiatzaren 6an egingo dira, Barakaldon (BEC), eta ahozkoak ekainaren erdialdera.

[webgunea](#)

2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
EGIAZTATZEKO EZOHIKO DEIALDIA

Ahozko proben behin betiko emaitzak argitaratu dira eta idatzizko probak ekaineko azken astean egingo direla aurreikusten da, ekainaren 26tik aurrera.

[webgunea](#)

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEAREN 27. OSASUN-BILTZARRA:
«ANIZTASUNA OSASUNEAN».

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Iruñean.

[egitaraua](#)

GIZA ESKUBIDEEN XV. ZINEMALDIA

Martxoaren 31tik apirilaren 7ra.

[webgunea](#)

EAE-KO ERIZAINZAKO X. JARDUNALDIA:
«ZAINZTEN ETA GIZARATERATZEN».

Maiatzaren 4an, Bilbon, Euskalduna Jauregian.

[egitaraua](#)

IKERGAZTE 2017, IKERTZAILE
EUSKALDUNEN BIGARREN KONGRESUA.

Maiatzaren 10etik 12ra, Iruñean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Arrosadiko campusean.

[egitarau orokorra](#)

EAE-KO EMAGINEN ELKARTEAREN III.
JARDUNALDI ZIENTIFIKOA: «EMAGINTZA:
OHITURAK ETA BERRIKUNTZAK»

Maiatzaren 11n, Bilbon, UPV/EHUren Abandoibarreko Bizkaia Aretoan.

[egitaraua](#)

